

Bi gizon lodi



- Bidaia bat egin oihanera larrazkenaz hitz egiteko eta uzten ezagutzeko. Erakusketa bat antola.
- Larrazkeneko uzten inguruan, loto, domino edo memory jokoak egin hurrekin, gero gelan jostatzeko.

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

Ahoskera

au, ai : aukera, haurra, intzaurra, taula, mahaia, zaila, sabaia...

h : ahoa, haurra, ahurra, herria, hau, auherra, beharria, beharra, behia...

Ondotik adizlaguna

- Onddoak bildu ditugu aldapan eta ondotik etxean moletan jan.
- Xakurra kanpora joan da eta ondotik desagertu da.
- Eman zaitetz lerro berean Xabiren ondotik.

Denboraren neurketa

Bi agindu eman hurrari ondotik erabiliz eta manuak bete behar ditu ordena kronologikoan. Adib. Argia itzal eta ondotik leihora joan zaitetz.

Espazioaren neurketa

Gauza bera espazioan oinarrituz :

- Eman zaitetze denak lerroan Maidarren ondotik (kasu : ondotik ≠ ondoan).
- Eta orain, Maider, eman zaitetz lerroan besteen ondotik.

Irudi sekuentzialak erabil eta ipuin laburrak berriz erranaraz.

Denbora adizlagunak eta adizondoak :
ondotik, lehenik , gero, aitzinetik...
– Lehenik Maider etxean sartu da eta gero amarekin hasi da margotzen.



Hunkimenaren lantzeko

Bertso-ipoin hau larrazkenean balia daiteke eta irakasleak edo ikasleek gelara ekarri uztak erabiliz hunkimenaren lantzeko. Adibidez Kim joko antolatuz : gauzak oihal baten azpian gorde, eta hurrak eskuarekin zer den asmatu behar du.

nor-nork indikatiboan.
– Sagarra hunkitu dut.

Dastamenaren lantzeko

Hurrari begiak hets eta ahora eman fruitu puska bat (gaztaina, sagar, intzaur...). Hurrak ezagutu eta izendatu behar ditu.

nor-nork indikatiboan.
– Udarea jan dut.